

# Elikadura eta nekazaritza mapak

## Aurkibidea

1. Aurkezpena
2. Aurretiko ikerketa
3. Mapak
  - Gaur egungo mapa
  - Mapa historikoak
  - Mapak egiteko aholkuak
  - Euskarria
  - Material osagarriak
4. Jarraipena eta aholkularitza

## 1. Aurkezpena

2008 urtean, historian lehenengo aldiz, hirietako biztanle kopuruak landa eremuetakoa gainditu zuen. Datu hau, batez ere mendebaldeko gizarteek jasan duten hiritartze prozesuaren isla da. Testuinguru honetan, landa eremuari bizkarra emanez bizi garela esan daiteke. Honen ondorioetako bat, elikagaiak sortu, eraldatu eta garraiatzearen inguruan dugun ezjakintasun sakona da.

Ekimen honen helburu orokorra, gaur egungo elikadura sistema eta honen ondorioen inguruko hausnarketa eragitea da, bai maila global batean eta baita ingurune hurbilean ere.

Horretarako, ikerketa prozesu bat proposatzen dizuegu. Honen bitartez, nekazaritza eta elikadurarekin zerikusia duten gaiak aztertu eta hausnartuko ditugu, gaur egungo egoeratik abiatu eta iraganera bidaiatuz. Horretarako, gaur egungo salmenta eta ekoizpen puntuak aztertu eta azken hamarkadetan egon diren aldaketak aztertuko ditugu.

Gure ustez, ekimen hau Bigarren Hezkuntzako ikasleekin lantzeko aproposagoa da baina behar diren moldaketak eginez gero Lehen Hezkuntzakoekin ere hausnarketa interesgarria izan daitekeela iruditzen zaigu.

## 2. Aurretiko ikerketa

Ekimen hau modu irekian planteatzen dizuegu. Ikastetxe edo ikasgela bakoitzak bere gaitasunen arabera erabaki dezake zein dimentsio, iraupen eta irismen emango dion. Ordu gutxi batzuekin, eztabaida eta hausnarketa sustatzeko adinako emaitzak lor daitezke. Ordu gehiago eskainiz gero, emaitza horiek analisirako aukera gehiago emango dute eta lortutako ondorioak aberasgarriagoak izango dira.

Bere ezaugarriengatik, ekimen hau zeharkako ikasgai bezala lantzeraz animatu nahi zaituztegu ikasgai desberdinetako edukiekin lotu baitaiteke.

Nekazal Kultura Eskoletara proiektuan jakin badakigu eskola bakoitzean egitasmo hau garatzeko modua desberdina izango dela baina aniztasun hau oztopo baino aberasgarri izango dela uste dugu. Ildo honetan burututako edozein lanek modu batera edo bestera ekintza honetan planteatzen diren gaien inguruan informazioa sakontzen lagundu dezake.

Mapak egiteko behar dugun informazioa lortu ahal izateko, **aurretiko ikerketa** bat egitea proposatzen dizuegu. Horretarako, tresna eta dinamika desberdinak erabili ditzakezue gelan:

- Irakaslearen azalpenak eta eztabaida guneak gelan.
- Ikasleen etxeetan elkarrizketak, eresketa saskia aztertu ahal izateko: ze elikagai kontsumitzen dira etxean, non erosten diren, nondik datozen...
- Ekoizle edo/eta janari denda jabeek elkarrizketak. Hemendik ere informazio ugari lor dezakegu: herriko elikagai ekoizpenaren egoera, bertako dendetan saltzen denaren jatorria, ekoizle eta denda txikietako langileen egoera...
- Herrian azoka egiten bada, bertara bisita egitea oso informazio iturri aberasgarria izan daiteke.
- Produktu edo produktu talde jakin baten inguruan jarraipen berezia egiteko aukera ere sor daiteke ikerketan zehar interes berezia izan dezaketela ondorioztatuko balitz.

Ahozko informazio iturri horiek guztiak, liburu, aldizkari, on-line dokumentazioa, bideoak edo antzekoen bitartez osa daitezke.

Ikerketa prozesuak, hainbat motatako jardunak uzta ditzake. Esate baterako, talde osoarekin burutzeko saioak (eztabaidak gelan, irteera kolektiboak...) bakarkako ariketekin konbina daitezke (etxean inkestak eresketa aztertzeo...). Beste aukera bat, gela talde txikiagoetan banatu eta talde bakoitzak atal bat aztertzea litzateke.

Taldearen antolakuntzaren atal hau ere, guztiz irekia litzateke ikastetxe bakoitzak bere behar eta ahalmenen arabera antolatu ahal izateko.

### 3. Mapak

Egindako ikerketa antolatu eta erakusteko, herriko "mapa mutuak" erabiliko ditugu. Bertan, ikerketa prozesuan zehar agertzen joan diren gai eta berezitasun guztiak jasotzen joan gaitzake.

#### Gaur egungo mapa

Bakoitzaren herrian elikadurak eta nekazaritzak gaur egun bizi duen egoera irudikatuko duen mapa batekin hastea proposatzen dizuegu. Mapa honetan, elikagaien ekoizpen eta salmentarekin erlazionaturiko puntu desberdinak jasoko genituzke:

### *Elikagai salmenta guneak*

Denda mota desberdinak islatzerakoan, kolore edo forma desberdinak erabiliz bereiztea gomendatzen dizuegu. Denda motak ondorengo hauek izan daitezke: denda txikiak, merkataritza gune handiak, merkatuak, kontsumo taldeak, baserrietako salmenta zuzena...

### *Kontsumo arduratsuaren irizpideak betetzen dituzten elikagaien salmenta puntuak*

Mapan agertuko den informazioa borobiltzeko, tokian tokiko produktuak saltzen dituzten dendak (herrian bertan, eskualdean edo Euskal Herrian ekoiztutakoak) eta baita produktu ekologikoak saltzen dituztenak ere identifikatzera animatzen zaituztegu.

### *Nekazal lursailak*

Erabilera desberdinak dituzten lursailak ere jaso ditzakegu mapan (baratzeak, larreak, abeltzaintza ustiategiak, egurrerako basoak). Hauen inguruan, ekoizten dituzten elikagaiak eta non saltzen dituzten ere jaso dezakegu.

### *Autokontsumorako baratzeak*

Nahiz eta jarduera profesionala ez izan, etxeetako baratzeak familia askoren elikadura ereduan oso esanguratsuak dira. Horregatik interesgarria iruditzen zaigu mota honetako baratzeak ere mapan jasotzea. Gero eta gehiago dira atal honetan sar ditzakegun baratzeak: baserrietako baratze txikiak, tradizionalki baratzeak egiteko erabili izan diren lursailak, udalerririk desberdinetan aurki ditzakegun baratze parkeak, lorategi edo balkoietakoko baratzeak, baratze komunitarioak...

### *Elikadura enpresak eta nekazaritzarekin erlazionaturiko beste enpresa batzuk*

Baratze eta nekazaritza eremuez eta salmenta puntuez gain, elikagaien ekoizpen eta salmentarekin erlazionaturiko beste interesgune batzuk egon daitezke gure herrietan. Horregatik hau mapan jasotzea interesgarria izan daiteke. Atal honetan aurki ditzakegun adibide batzuk: ogi edo beste elikagaien ekoizpenerako obradoreak, elikadura industriak, nekazaritzarako produktuak saltzen dituzten biltegi edo kooperatibak...

### *Elikagaien bideak*

Mapan ere, herrian zehar elikagaiak saltzen ibiltzen diren saltzaileen ibilbideak jaso ditzakegu. Ez dira asko izango baina duela gutxi arte, eta gaur egun ere, badira maiztasun batekin herrira produktu jakin bat saltzera etortzen diren saltzaileak. Adibide ezagunetarikoa da egunero etxez-etxe edo dendetara esnea saltzen pasatzen ziren emakumeena, edo herriz-herririk arraia saltzera mugitzen diren furgonetak.

### *Elikagai fluxuak*

Zailagoa den arren, mapan elikagaien fluxuak ere irudika ditzakegu gezien bidez. Hau da, ohikoak diren elikagaien jatorria ezagutzen badugu, hauen urruneko jatorria ikusarazi dezakegu mapan.

Adibidez, ia ziurra izango da etxalde ez ekologikoetan hego Ameriketatik datorren soja transgenikoarekin osaturiko pentsua eta Nafarroa, Frantzia edo urrutiagotik ekarritako artoa erabiliko dutela ganaduarentzat.

Bestalde, ziuraski herrian kontsumitzen den haragi, fruta eta barazki askok Euskal Herrietik kanpo izango dute jatorria Errioxa, Almeria edo hego Amerikan esate baterako.

Hori guztia islatzeko, munduko mapa bat erabiltzea izan daiteke beste aukera bat.

## Mapa historikoak

Azken hamarkadetan zehar gure herrietako elikadura ereduak jasan duen bilakaera aztertzeko, gaur egungo egoera eta iraganekoa alderatzeko aukera emango diguten mapa historikoak egitea proposatzen dizuegu.

Komenigarria da mapa horiek, gaur egungo mapan egin dugun sailkapenaren ahalik eta antzekoenak islatzea (nekazal guneak, elikagaien salmenta puntuak, nekazaritza eta abeltzaintzarekin erlazionaturiko beste elementuak, elikagaien fluxuak...).

Nahiz eta proposamen hau guztiz irekia den XX. mendean zehar pare bat momentu aukeratzea gomendatzen dizuegu. Horietako bat 40 edo 50. hamarkada izan daitezke eta bestea 70 edo 80 hamarkada.

Lehenengoan, nekazaritzak eta lehen sektoreak gure herrietan garrantzi ekonomikoa, soziala eta kulturala mantentzen zuten garaiaren isla edukiko genuke. Ziuraski, elikagai asko gertu ekoiztutakoak zirela ikusiko dugu eta baita herrietako dendek bertako produktu ugari saltzen zituztela.

Bigarrenean ziuraski egoera askoz hiritarragoa aurkituko dugu baina oraindik bertako produktuak saltzen zituzten denda txiki sarea mantenduko duena (merkatalgune handien sorreraren aurretik).

Edonola ere, une historiko hauen aukeraketa, ikerketa fasean lortutako informazioa eta eskura dituzuen baliabideen arabera egin dezakezue.

## Mapak egiteko aholkuak

Ariketaren emaitzak mapen bidez azalduko ditugu eta hauek egiteko modua guztiz irekia bada ere, kontuan hartzea komeni den gomendio pare bat uzten dizuegu hemen:

- Informazioa jasotzeko erabiliko ditugun mapa mutuak, aztertuko dugun zonaldearen ahalik eta neurrikoen izatea eta ahalik eta handien inprimatzea.
- Elementu eta ezaugarri desberdinak deskribatuko dituzten ikurrak definitzea (denda mota desberdinak, nekazal guneak, fluxuak, merkataritza ibilbideak...)

## Euskarria

Informazioa eskuz bete daiteke mapa mutu baten gainean, ikur desberdinak bertan marraztuz, figura txikiak bertan itsatsiz, gometxeekin, koloretako txintxetekin...

Mapa mutuak inprimatzeko arazorik izanez gero, jarri lasai harremanetan Nekazal Kultura Eskoletara proiektuko koordinatzaileekin.

Horretaz gain, bakoitzaren gaitasunen arabera, modu digitalean ere egin dezakegu lan. Informazio guztia jaso ondoren, atal desberdinak islatuko dituzten mapak egitea komeni den aztertu daiteke. Hau bereziki interesgarria izan daiteke informazio asko bildu baldin bada.

## Material osagarriak

Mapak izango dira gure lanaren emaitza nagusia baina hauek osatzeko ikerketa lan bat egin behar dugula kontuan harturik, prozesu guztia jaso eta azalduko duten materialarekin osatzea aproposa iruditzen zaigu. Honek gainera mapetan jasotako informazioa osatzen lagunduko digu.

Material osagarri hauek mota desberdinetakoak izan daitezke: liburuxka edo dosierra, kartelak, argazkiak, bideoak, audioak...

Laburbilduz, bakoitzaren gaitasun eta denboraren arabera emaitzak anitzak izan daitezke:

- Gaur egungo elikadura mapa osatu eta hausnarketa egin.
- Gaur egungo mapa eta mapa historiko bat egin eta desberdintasunak aztertu.
- Gaur egungo mapa eta beste garai batzuetakoak osatu eta gai honekiko gure herriaren bilakaera aztertu.
- Mapen osagarri izango diren materialak sortu ala ez.
- Produktu jakin batzuentzako material zehatzagoak sortu.

## 4. Jarraipena eta aholkularitza

Nekazal Kultura Eskoletara proiektuaren talde dinamizatzailetik, momentu oro laguntza eta aholkularitza izango duzue. Badakigu oso modu irekian planteatu dugula ekimen hau eta horrexegatik, prest gaude dinamika honen ardura hartuko duten irakasleekin harreman estua izateko.

Une jakin bakoitzean izan ditzakezuen zalantzak argitzeaz gain, prest gaude ikastetxe desberdinetan, beharren arabera, zuekin biltzeko eta kasu bakoitzean suertatu daitekeen prozesu zehatzagoa diseinatzeko eta aurrera eramaten laguntzeko.

Horrez gain, eta Nekazal Kultura Eskoletara proiektuaren barnean sortzen ari den sare dinamikari jarraituz, ikastetxe desberdinetan egiten dituzuen lanak partekatzeko modua ere pentsatuko dugu. Parte hartzera animatzen zareten ikastetxe kopurua eta emaitzen arabera izango da hori baina oso interesgarria iruditzen zaigu besteen lanak ezagutu eta hortik atera daitezkeen ideia eta proposamen berriak jasotzea.